

Tartaloren betaurrekoak

Larraitz Oñatibia¹

Ilustrazioak: Arantxa Paskual

Azken aldian triste esnatzen da Tartalo. Oraindik ere bere iratze ohean etzanik begi bakarra ireki eta dena lausoturik ikusten du kobazulo barruan. Ez da koba barruko argitasun faltagatik. Bestela da, guztia definitu gabe, gaizki ikusten du eta beldur da zahartzaroaren lehen ondorioak sufritzen hasia ez ote den. Adinak urteez gain miopia ere ekarri diola dirudi.

–Zer nahi duk ba, Tartalo –esaten dio bere buruari –betirako ezingo gaituk bizi eta ...–. Egia da, Tartalok ere badu bere milaka urte mordoska eta egoera berri honek oraindik ere zaharrago sentiarazten du.

Triste egoteaz gain, Tartalo haserre ere badago oso. Egia esateko, koskorretaraino eginda dago! Ondo ez ikuste hori dela eta, ohetik jaiki orduko kobazuloko pareta guztiak jotzen ditu eta zernahirekin estropuz egiten du: DANBA! AAIII!, KOINK! UUIII! Hainbeste danbateko eta muturrekoren ondorioz aurpegi, beso eta hankak ubelduraz josiak ditu eta gorputz osoa minberatuta. Horrela hasten da eguna Tartalorentzat azken aldi honetan, baina ez du askoz hobeto jarraitzen kobazulotik ateratzen denean.

Beti bezala, goseak amorraturik, gaur ere Tartalo goiz irten da kobazulotik gosaltzeko ardiren bat edo besteren bila. Urrutiko larreetan ezin izan ditu bistatu, baina bere usaimen zorrotzari esker badaki han direla eta marraka bakan batzuk berehala baieztatu diote begitandutakoa.

Bere pauso azkar eta indartsuaz, hantxe abiatu da Tartalo aldapan behera, ziztu bizian, artaldea ezustean harrapatu nahian. Malkartxo bat igo eta artaldearen gainean denean, artzain-txakurra zaunkaka eta artzaina bera oihuka gerturatzen sentitu ditu. Tartalo ez da larritu, bai baitaki biek

ala biek errespetu baino beldur handiagoa diotela eta arazorik gabe pare bat ardi gizen hartzeko nahikoa denbora izango duela. Harrigarrigo ordea, ardiak harrapatzeko besoak luzatzen dituen bakoitzean kale egiten du, behin eta berriz, eta azkenerako, artzaina gehiegi gerturatzen ari dela ikusita, handik alde egitea erabaki du. Ihesean doala, zakurraren zaunken artean, artzaina barrez sentitu du eta horrek bai eman diola amorrazioa, bai!

Nahikoa urrutiratu denean enbor baten gerizpean eseri eta ezinbestean marmarreen hasi da bere buruarekin:

–Galtzagorrien galtzontzilo zikinak! Baina, baina, ze demontre gertatu da ordea? Ezin dut ulertu! Ezin dut sinetsi! Eskueran nituen eta? Begi madarikatu hau!

Tartalo bakarrizketan dabilen bitartean, artzaina korrika bueltatu da herrira, ardiak larrean lasai utzita. Gustu handiz eta barre artean, berehala kontatu die guztiei gertatutakoa eta hai-zea bezain azkar zabaldu da Tartaloren ezina herritarren artean. Artzaina, zirikatzaile amorratua izaki, ez da lasai geratu kontaketa hutsarekin. Mendira bueltatu, baso itxian sartu eta Tartalo zelatatzea erabaki du.

1. XXXI. "Erretereria Hiria Ipuin Lehiaketa"ren euskara-modalitatearen irabazlea. Ereintza Elkarrekin antolatutako eta Erretereriako Udalaren babesarekin. Epaimahaia: Mirentxu Larrañaga eta Juan Gartzia.



Basora iritsitakoan, erreka ondoan topatu du Tartalo, luze bezain zabal, belarretan etzanda lo zerraldo. Aldamenean dituen sagar kondotsak eta gaztaina morkotsak ikusita, artzainari irribarra etorri zaio aurpegira eta pentsatu du “Ez duk, ez gaur haragi askorik jan e, Tartalo?” Ezkutuan begira dagoela, artzainari Tartaloren gana hurbildu, eta isilka-isilka sudurzulo ile batzuk lapurtu behar dizkiola bururatu zaio. “Ardiekin bezain iaio bazebilek, ez naik harrapatuko eta herrira eramango ditiat ileak erabateko froga gisara” pentsatu du.

Poliki-poliki, txintik ere egin gabe gerturatu, Tartaloren gainean makurtu, behatzak luzatu, sudurzulo batetara hurbildu eta ZAST! bere indar guztiekin egin die tira ileei.

–AAAAAAAAAAAA ! –oihukatu du Tartalok bat-batean esnatuta eta kolpetik zutik jarri da eskuak sudurrera daramatzen bitartean.

Orduantxe konturatu da inguruan norbait dabilela, eta besoak luzatuta haren atzetik abiatu da harrapatu nahian:

–MADARIKATUA! HARRAPATUKO HAUT! Bazekiat hi haizela artzain zikina, hire ardi usainean antzeman zezakeat!

Artzaina ileak hartuta hantxe abiatu da abia-dura bizian, baina gutxira konturatu da Tartalok ez dakiela bere atzetik nora jo eta lasaiago bueltatu da herrira.

Dagoeneko herrian inork ez du zalantzarik: Tartalo erdi itsuturik dago eta beren artaldeak lasai bazka daitezke larreetan. Pozez zorutzen daude guztiak, zahar eta gazte, ez gizakiek ez ardiek ez dutelako dagoeneko Tartaloren beldur izan behar.

Tartalo berriz basoan ez dago pozik, noski. Nola egongo da, ba? Gauzak ezin okerrago doaz egunetik egunera eta konponbide bat bilatu behar dio arazoari. Berehalakoan joan behar du basoko sorginaren dendara begi horretarako zer edo zerren bila.

Denda izugarria da sorginak basoaren erdian daukana. Izugarria eta iluna, apalak lepo, imajina ezinezko gauzak han-hemenka kokatuak: sagu-zahar mukiak paretan zintzilik, apo puzkerrak kristalezko potoetan, herensuge buztan bat, azkonar atzaparrak, poloko pinguino diseatu bat, ukitu orduko hauts bihurtzen diren liburu zaharrak... Nahasmen horretan eta daukan ikusmen faltarekin, Tartalok zuzenean sorginaren gana jo eta bere arazoa azaltzea erabaki du. Sorginak prestuki eta irribarre gozo-gozo batez, dudarik gabe, betaurrekoak behar dituela esan dio eta dendako betaurreko pare elegantea ateratu dio.

–Hauekin bai, hauekin piiiimeran ikusiko duzu! Bai, bai, ikusiko duzu, ikusiko duzu! –esan dio sorginak.

Saltzaile ona izan da benetan sorgina. Paketetxoan apain-apain bildu dizkio betaurrekoak eta poz-pezik eta lasaitu ederra hartuta ateratu da Tartalo dendatik! Lehenbailehen frogatu nahi ditu betaurreko berriak eta ardi harrapaketa beste saiakera bat egitea erabaki du. Horrela, bigarrenez gaur, larreetara abiatu da.

Erabat bertaratu baino lehen, betaurrekoak jantzi eta korrika hasteko prest jarri da Tartalo. Ordurako artzaina herritik bueltatua da eta azkar antzeman ditu gerturatzen Tartaloren pauso ozenak. Pausoak ozenak bai, baina ez dira ugariak, lau baino ez, bosgarrenean Tartalok, inguruetan oso mires-tua den jentilarri batekin tupust egin eta muturrez aurrera erori baita artzainaren begi bistan.

–AAAAAA! –oihu egin du Tartalok minez, birao, madarikazio eta aiene artean eta artzaina berriz, barrez lehertu beharrean da.

Hirugarrenez gaur, artzaina herrira jaitsi da guztiei ikusi berri duena kontatzera, oraingoan Tartalori bertsoak aterako dizkiotela pentsatzen duen bitartean.

–Baina, baina, zer duk hau! Ez diat deus ikusten eta! Zer arraio dute betaurreko hauek! –dio Tartalok erabat haserre.

Behin eta berriz erantzi eta jantzi ditu betaurrekoak eta azkenerako konturatu da zer gertatzen zaien betaurrekoei: bi begidunentzat eginak direla !!! Eta berari sudur gaineko kristalen loturak, bete-betean tapatzen diola bere begi bakarra !!

–Eta zer egin behar dut ba nik orain? –dio atsekabeturik oso.

Lur jota, animua altxa ezinik, eguna bukatzeko basoko bentara joatea erabaki du Tartalok, ezagunen artera, laguntasun pixka baten bila. Han egingo du topo ziur aski Patxi eta berak emango dio aholku onen bat. Ez, Patxi Errementariarekin ez. Hau beste Patxi bat da, Patxi Pirata, pirata begibakar eta hankabakarra. Patxi itsasoaz aspaldi nazkatu eta lur barru-barrura, inguruetako baso itxienera, erretiratutako pirata zaharra da. Beren begibakartasunean, elkar ikusi orduko, ulermenezko laguntasun berezia sortu zen Tartalo eta Patxiren artean eta orduz geroztik adiskide minak dira.

Sartu orduko antzeman dio Patxik Tartalori aurpegi txarra:

Zer duk ordea, Tartalo? Egun txarra izan al duk?

Txarra? Txarra baino okerragoa, motel!

Aurpegi goibelez, bere eguna eta azken aldiko gorabehera guztiak azaldu ditu Tartalok eta Patxik adi-adi eta patxada osoan entzun ditu denak.

–Eta egia esan, oraintxe bertan, zer egin ere ez zekiat –aitortu dio Tartalok.

–Lasai, motel. Gu bezalako tipo ausar-tentzat begibakar izatea ez duk sekula arazo izan eta orain, bista pixka bat eskastu zaihalako ez gaituk ba sardinak bezala kikilduko, ezta? Nik badiat konponbide eder askoa hire arazoarentzat! Lasai egon! Neptunoren sardeari baino beldur handiagoa edukiko diate denek eta!

Ilunabarra da bi lagunak bentatik atera direnerako, baina berdin dio, eginkizun handiak dituzte eta. Patxiren kobara sartu eta kutxa eta altxor artean topatu du azkenean Patxik, lagunarentzako pentsatuta zuen oparia: kataloxa bat!

–To, Tartalo! Hirezat duk opari! Honekin Jonasen baleari hesteak ere ikusiko dizkiok! Hori bai, goma pare bat jarri beharko dizkiok alboetan kataloxari, burura lotzeko.

Tartalok, dagoeneko eskarmentatuta, lehengo gauza kataloxa eskuetan hartu eta frogatu egin du.

–UAU! Arrazoi duk! Hau duk hau ondo ikustea! –dio alde guztietara begira jarraitzen duen bitartean– Hara! Mariren koba ezkutua ere topatu diat eta tramankulu honekin! Koba barrua txukuntzen ari dela zirudik... Ja, ja, ja!

–Pozten nauk Tartalo hi berriz umoretsu eta alai ikustez. Baina lasai, bihar oraindik ere barre egin beharra izango haiz eta, herritar zarpail eta ezjakin horien aurpegiak ikusita –esan dio Patxik.

Horrelaxe agurtu dira bi lagunak eta Tartalo bere kobazulora bueltatu da biharamuneko mendekuz dagoeneko gozatzen.

Biharamunean, eguneroko martxan, Tartalo gosaltzera abiatu da larreetara ardi bila, baina oraingoan bere begi berria kopetan duela, ordea. Artzaina Tartalo gerturaten sumatu orduko barre algaraka hasi da ozen-ozen, baina ederki mututu zaizkio algarak zuhaitz artetik, izaki adardun ezezagun bat orroka gerturaten ikusi duenean. Berehala txakurrari deitu eta oihuka, erabat aztoratuta, zalapartan besoak astinduz, ahal bezainbeste ardi aurrean hartuta jaitsi da artzaina menditik behera herrira, beldurrez galtzetan kakari eutsi ezinean.

Tartalok ez du gehiago egin beharrik izan, lasai-lasai, nahi adina ardi harrapatzeko. Eta nola

harrapatu gainera! Erraz aski bai! Bista hobetu horrekin, ez dio eltxo bakar batek ere eskuetatik ihesik egingo hemendik aurrera!

Herrian eta bailara osoan berehala zabaldu da azken berria: Tartalorenak ziren inguruetan, izaki berri izugarri bat azaldu da; kopetan adar bakar bat duen izaki beldurgarri bat, ikusmen magikoa duen izaki misteriotsua. Txutxu-mutxu zaleak eta sasijakintsuak oraindik ere eztabaidan dabilta unikornioaren baten ahaideren bat ote den ala ez, erabaki ezinean.

